

Ikastolen Elkarteko XIX. Jardunaldi Pedagogikoak

Elkarbizitza eredu berri baterako pedagogia

Eskolan, Giza Eskubideetan oinarritutako kontzientzia kritikoaren sustapena

2012ko martxoaren 13, 14 eta 15ean

Jonan Fernandezek hitzaldia

Elkarbizitzarako hezkuntzako lau puntu kardinalak

Hitzaurrea (kontzientziaz)

Beharantz egindako sei solairuko eraikina omen da kontzientzia, aztertu duten adituek diotenez. Hirugarren solairuan, adibidez, onartzen, hartzen, ordezkaten... gaituen taldearekiko edo kausarekiko leialtasun-kontzientzia dago. Izugarrikeria handiak egiten dira kontzientzia onarekin, edo, besterik gabe, nahita egiten dira gauzak gaizki, kontzienteki, kontzientzia lasaiarekin. Nola litekeen hori? Bada, kontzientzia azaletik bakarrik entzunda, geure kontzientziaren 2., 3. edo laugarren mailetan aurkitzen dugunarekin konformatuta.

Eta hona hemen galdera: “Zertarako behar dugu kontzientzia?”. Aukeratu ahal izateko daukagu kontzientzia; etikarekin hautatzeko, bizi dugun egoera bakoitzean geure erantzukizun etikoa onartzeko. Horixe dugu geure ahalmen nagusia: geure askatasuna, geure aukeratzeko gaitasuna. Oso garrantzitsua da hori. Ez gaude predeterminazioaren mende, aukera bakar batera behartuta. Beti daukagu hau edo hura aldatzeko aukera. Hobetzeko gaitasuna dugu gizakiok, hautatzeko gai garelako.

Geure giza altxorrik preziatuena dugu, ordea, geure arazo nagusiena ere: hautatzeko gai gara. Hautatu dezakegu egoismoaren, dogmatismoaren, amorraren, beldurraren, indarkeriaren, aurreiritziaren eta abarren bulkada hutsa izatea, edo, bestela, bulkada hutsa baino zerbait gehiago izatea. Kontzientziaren hirugarren solairuan geratzea aukera dezakegu, edo harago jotzea. Horra gizakion paradoxa: helburu handiena eduki eta gutxienera jotzen dugu.

Handiena nahi izaten dugu, bai: justizia, bakea, elkartasuna, berdintasuna, adiskidetasuna... Gutxienera jotzen dugu, ordea: egoismora, gatazkara, norberaren interesera... Bidegurutze horretan, tentsio horretan, geure bizitza, elkarbizitza, edo hezkuntza daude jokoan. Eta hor daude geure erantzukizuna eta askatasuna. Bidegurutze horretan, hortxe daukagu geure kontzientzia, hautatzen laguntzeko. Hautatzeko gai gara, izan ere. Egoera bakoitzean, kontzientzia kritiko bat aukera dezakegu, edo kontzientzia akritikoaren bidetik jo. Beste hitz batzuekin esanda, kontzientziaren azaleko mailetan gera gaitzke, eroso, edo kontzientziaren sakontasunean murgildu.

“Zer dela-eta kontzientziari buruzko hitzaurre hau?”, galdetuko diozue, agian, zeuen buruari. Bi arrazoiengatik. Alde batetik, giza eskubideetan oinarritutako kontzientzia kritikoa sustatu behar dela dio, esplizituki, jardunaldi hauen azpitituluak. Zer da, baina, kontzientzia kritikoa? Azaleko mailak gainditzeko gai den kontzientzia, bertan eroso sentitzen ez den kontzientzia. Kontzientzia kritikoa ez da kontzeptu teoriko bat, geuri dagokigun zerbait baizik.

Bestalde, kontzientzia-hartze sakon baterako gonbita dakarkizuet hitzaldi honen sarrerara. Zehazki, hau eskatzen dizuet areto honetan zaudeten guztioi: bizitzen ari garen une historikoaz ohartzeko, aurrean dugun desafioa eta aukera sakon aztertzeko.

Hainbat hamarkadako inertzia eten egin da, azkenik. Indarkeria, giza eskubideen urratzeak, zatiketa, amorrua, irainak, oinazea eta sufrimendua jasan ditu geure herriak inertziak iraun duen bitartean. Ez dakigu zer ibilbide egin beharko dugun, baina, iragan urriaz geroztik, suntsipen-enfrentamenduaren bidetik irtena da geure herria. Urrats historikoa, benetan.

Horren garrantziaz jabetzeko eskatzen dizuet, egoera honetan gutako bakoitzari dagokion erantzukizun etikoaz ohartzeko. Merezi du tartetxo bat hartzea sakon hausnartzeko. Merezi du, bestalde, hiru egun ematea honetaz guztiaz hausnartzen jardunaldi hauetan. Zorionak!

1. Mapa berri bat

-**Ibilbide zaharra.** Aspalditik, duela hilabete gutxira arte, mapa simple batek gidatzen zuen geure eremu publikoa, geure bizikidetzaren soziopolitikoak. Autobide hesitu baten mapa zen. Irtenbide gutxi zituen autobideak, eta ez zeraman inora. Ibilbide espirala egiten zuen geure gizartean. Paisaia, berriz, aspergarria, errepikakorra eta mingarria zen: indarkeria, giza eskubideen urratzeak, amorrua, tentsioa, elkar ezinikusia, ezina, frustrazioa, etsipena... Urte askoan, ez dira aprobetxatu autobide horren irtenbide bakanak.

-**Ibilbide berria.** Orain, azkenik, irteera-errei batean sartu gara. Ez dakigu oso argi ez nondik goazen, ez nora iritsiko garen. Baina gauza batzuk badakizkigu: lehenbizikoa, aurreko mapak ez digula jada balio; bigarrena, mapa berri bat behar dugula; eta, hirugarrena, mapa berri horren iparrorratza hau izan behar dela: giza eskubideetan oinarritutako kontzientzia kritikoa. Ez dakigu askorik; baina ez da gutxi ere, eta, batez ere, garrantzizkoa da.

-**Beste mapa bat.** Berreraiki beharra daukagu bizikidetzaren sozialaren mapa, eremu publikoaren eta komunitarioaren mapa. Nazioartean, "berradiskidetze-prozesua" deitzen diote horri. Hemen, errezelo handiak sortzen ditu hitz horrek, "berradiskidetzeak". Guk, ordea, ez ditugu hitzak arazo bihurtzen. Bizikidetzaren (eta berradiskidetzearen) kultura berri baten oinarriak dituen mapa behar dugu. Horra geure desafioa. Ikus ditzagun, bada, bide horretan aurkituko ditugun mugarrietako batzuk.

2. Mugarriak: bidaia honetarako erreferentzia batzuk

-**Abiapuntua.** Lehenbiziko mugarria abiapuntua dugu. Nondik hasi? Jakina, ez dugu errealitate urrundu behar. Hona hemen geure iradokizuna: onartu beharra daukagu esperientzia traumatiko bat bizi izan duela geure gizarteak.

Hainbat hamarkadako indarkeriak, giza eskubideen urratzeak eta zatiketak eragina izan dute geure arteko harremanetan, baita geure iraganarekin, orainarekin eta geroarekin harremanetan jartzeko moduan ere. Bizikidetzaren mapa berri baten eginkizuna muga horiek gainditzea da. Libre begiratu nahi diogu geure buruari, geure iraganari, orainari eta geroari; aurreiritzietatik eta gaitzondotik libre.

-**Koordenatuak.** Hiru denbora horiek (iragana, oraina, geroa) egituratzen dute berradiskidetze sozialeko prozesu batean egin beharrekoa. Mapa berriaren koordenatuak dira, eta hiru galdera hauei erantzuna bilatzea da haien eginkizuna:

-iraganari dagokionez, zer gertatu da eta zer ondorio ateratzen dugu?

-orainari dagokionez, zein da lehentasuna, orain?;

-eta geroari dagokionez, zer egin behar da berriro horrelakorik ez gertatzeko?

Beste bizikidetza- eta berradiskidetze-kultura bat eratzea hiru galdera horiei erantzun zintzoa, egiazkoa, ulergarria eta partekatua ematea baino ez da. Komeni da, bestalde, irudikatzea gazteen belaunaldiak egingo dizkigula galdera horiek.

-Ibilbiderako orientazio-irizpidea. Oso delikatuak izan ohi dira prozesu horiek; oso erraz desegonkortzen dira. Horregatik, egonkortasun-irizpide bat behar dugu ibilbide osorako. Hau iradokitzen dugu: "Orekari eustea iraganari, orainari eta geroari eskaini behar diegun ahaleaginean". Funtsezkoa da hori. Izan ere, erabakitasun bera behar dugu hiru denboretarako:

-Iraganari dagokionez, erabakitasun irmoa behar dugu, giza eskubideen urraketa bakar bat ere ez baztertzeko eta biktima guztien sufrimendua aintzat hartzeko, salbuespenik gabe.

-Orainari dagokionez, erabakitasun irmoa behar dugu geure gizartea humanizatzeke, iraganaren inertziak alde batera utziz eta bakea sendotzeko hartu behar diren erabakiak hartuz.

-Geroari dagokionez, azkenik, erabakitasun irmoa behar dugu etorkizunean bizikidetza gizartean erabat txertatzeko, irizpide etikoak eta demokratikoak oinarri direla betiere.

Iraganerantz gehiegi makurtzen bagara, ez gara geroa sustatzeko gai izango; geroari bakarrik begiratzen badiogu, iraganaz ahaztuta, zauriak ez dira ondo itxiko; orainaren lehentasunak ahazten baditugu, prozesuak ez du aurrera egingo. Iraganaren, orainaren eta geroaren arteko oreka behar dugu, beraz.

3. Ibilbide berrirako giltzarria

Iraganaren irakurketa egitea da berradiskidetze-prozesu bateko alderdi delikatuena. Horregatik, ez gaitzen engaina: ez da egongo adostasun politikorik gertatutakoaren jatorriaz edo sorburuz. Diagnostikorik partekatua hau izango da: ez dago diagnostiko partekaturik. Hala eta guztiz ere, ate guztiak ez daude itxita.

Interpretazio edo diagnostiko desberdinak egin arren, ondorio edo balorazio adostu batera iritsi gaitzke. "Berradiskidetze-prozesuaren giltzarria hau da: geure historiako azkeneko mende-erdiari buruzko oinarrizko balorazio etikoa eta ondorio praktikoa minimoa partekatzea". Ez da erraza izango baina minimo hori beharrezkoa da ibilbideari ekiteko.

-Oinarrizko balorazio etikoa. Hona hemen iraganari buruzko oinarrizko balorazio etiko bat partekatzeko geure proposamena:

“Gertatu zena (giza eskubideen urraketak) gertatu zen zenbait taldeen eta pertsonen arrazonamenduan giza duintasunaren gainetik beste balio batzuk jarri zirelako (kausa bat, helburu bat, estatu-arrazoia, ikuspegi ideologiko bat, sinesmen eta irizpide jakin batzuk...)”.

-Gutxieneko ondorio praktikoa. Hona hemen gutxieneko ondorio praktikoa bat partekatzeko geure proposamena, etorkizunari begira eginga betiere:

“Etorkizunean, inoiz gehiago ez da jarri behar giza duintasunaren gainetik, gizakiaren eta bizitzaren gainetik, inongo kausa politikorik, estatu-arrazoirik edo bestelako uste edo irizpiderik, balio absolutua balira bezala”.

-Edukiak. Belaunaldi berriari, gazteei, argibideak eman behar badizkiet, uste dut hau funtsezkoa dela. Neure seme-alabek edo ikasleek istorio honetatik ezer ikastekotan, hiru eduki nagusi dituen gaiaren funtsa, mamia, ondo ulertzea gustatuko litzaidake:

-Ezin dugu ahaztu giza eskubideen urratze izugarriak egin zirela, eta urratze horiek biktimak eta sufrimendua eragin zituztela, bidegabeki, eta demokraziaren printzipioak eta elkarrizketa bazterrera utzi zirela.

·Norberaren iritziei balio absolutua emateak ahalbidetu zuen hori, helburua lortzeko edozein bitarteko dela zilegi uste izateak, beste edozeren gainetik ipintzen den zerbait erdiesteko "denak balio du" pentsatzeak.

·Berrero horrelakorik gerta ez dadin, inoiz ez da ipini behar giza duintasunaren gainetik norberak garrantzitsuen deritzon kausa. Horrek praktikan demokraziaren printzipioekin eta elkarrizketarekin konpromisoa hartzea esan nahi du.

Neure ustez, orain aipatu dudan hori da ardatza, bizikidetzaren eta berradiskidetze-kultura berri baten muina. Iraganeko gertatutakoaren balorazio etiko bat partekatu beharra daukagu, orain, etorkizuneko bizikidetzarako baliagarri izan dadin. Balorazio eta ondorio horrek ardatz bera dute: giza duintasuna. Izan ere, giza duintasuna da giza eskubideetan oinarritzen den kontzientzia kritikoaren funtsa. Hemen jardunaldi hauen izenburuarekin topo egingo dugu berriro.

4. Oinarriak: gizarterako eta hezkuntzarako printzipioak

Geure bizikidetzak hasi behar duen bidaiak eragin desberdinak izango ditu alor soziopolitikoan eta hezkuntzan. Hala ere, beharrezkoa da oinarri berdinak partekatzea. Bizikidetzaren berradiskidetzarako gizarte eta hezkuntza mailako praxia partekatzeraren garrantzitasun kontzeptuak dira. Funtsezkoa da, adibidez, geure gatazka kudeatzeko printzipio batzuk partekatzea, bai alor soziopolitikoan bai hezkuntzan. Hiru printzipio hauek azpimarratzen ditu Baketik-ek:

·Printzipio etiko bat. Ezin da ipini giza duintasunaren, gizakiaren eta bizitzaren gainetik inongo kausarik ezta kausa hori defendatzeko edo gauzatzeko aukeratutako bitartekorik ere.

·Printzipio demokratiko bat. Ezin da galarazi demokratikoki defendatutako inongo kausaren garapena eta gauzatzeko, baldin eta giza eskubideak errespetatzen eta bide demokratikoak erabiltzen badira eta behar adinako gehiengorik bereganatzen badu.

·Printzipio metodologiko bat. Elkarrizketa bidez kudeatu behar dira elkarren aurkako kausak, eta, adostasunik ez badago, printzipio eta bitarteko demokratikoen arabera jardun.

Printzipio horiek —edo oso antzekoak— hedatu behar dira politikan, gizartean, komunikabideetan, katean, familian eta eskolan bizikidetzaren eta berradiskidetzaren berradiskidetzarako. Gizalegezko elkarbizitzaren oinarritzko arauak dira. Horretan ados jarriz gero, ez zaio beldurrik izan behar desberdintasunari, gatazkari, eztabaidari, aniztasunari...

5. Hezkuntzarako lau puntu kardinalak

Ez dagokio hezkuntzari ibilbide berri honetako arazoaren funtsa konpontzea. Bestelakoa da hezkuntzaren eginkizuna: bizikidetzaren berradiskidetzaren berradiskidetzarako. Orain arte esan dudan guztia puntu honetarako prestakuntza izan da. Iritsi gara, bada, hezkuntza-alorrak behar dituen zehaztasunetara eta alderdi praktikoetara.

Aipatua dugu mapa berria, baita helmuga ere; aztertu ditugu mugarrak, giltzarriak eta oinarriak. Kokatu egin gara, alegia. Orain, abiatzeko unea iritsi zaigu. Bizikidetzarako pedagogiaren lau ardatz, lau puntu kardinal, irakaskuntzarako bereziki prestatuak, jorratuko ditugu. Ardatz horiek dira, hain zuzen ere, txosten honen muina.

-Atariko ohar bat. Proposamen hau zehazten hasi aurretik, gauza bat argitu behar dugu: ez dago formula magikorik elkarbizitzarako hezkuntzan; ezin ditugu ikasleak birprogramatu. Ez dago gizon-emakume berriak, adeitsuak, eskuzabalak, elkarrizketarako irekiak, solidarioak... sortzeko estrategiarik edo proposamen didaktikorik. Ez dago horrelakorik, iguripen faltsu horretan tematzen bagara ere.

Ez dago formula errazik eta azkarrik. Bideak eta prozesuak daude, eta hau dute helmuga: baldintzak sortzea, ereitea. Horixe da bidea: baldintzak sortzea, hezkuntza-jarduera xumeen, txikien eta etengabeen bitartez, behin eta berriro. Ardatz bakan batzuk baliatu behar ditugu, eta haietara itzuli behin eta berriz. Horra geure filosofia.

-Proposamena, labor. Txosten honen izenburuko ardatzak ditugu, bada, aipatu berri ditugunak. Lau ardatz proposatuko dizkizuegu, eta horietara jo behar dugu behin eta berriz, bizitzarako eta elkarbizitzarako balio didaktiko handia baitute. Hauek dituzue, labor-labor:

-Gizakiok mugatuak garela barneratzea eta partekatzea. Izaera mugatuak, izan ere, alderik alde zeharkatzen du geure bizitza, eta erabat baldintzatzen.

-Esker onaren zentzua barneratzea eta partekatzea. Esker onak askatasuna ematen digu bizitzaren alde onak, positiboak eta ederrak ikusteko, eta aukeretaz jabetzeko.

-Kontzientziari entzuteko ohitura barneratzea eta partekatzea. Dogmatismo, egoismo, amorru... bulkada hutsa baino zerbait gehiago izatea ahalbidetzen digu.

-Giza duintasunaren balioa barneratzea eta partekatzea. Baliorik gorena gizakia dela jabetzen laguntzen digu.

Baketik-en Bizizikasi pedagogiatik hartuak dira lau ardatz horiek. Zortzi ikaskuntza- eta esperientzia-ardatz ditu eta Izan Proposamenaren bidez garatzen da. Hezkuntzarako, lehenbiziko lau horiek dira garrantzizkoenak. Ardatz horietara jo behar dugu, behin eta berriro, bizikidetzarako heziketa-lanean. Bestalde, ez da emaitza ikusgarririk espero behar; egunero landu behar dira lau ardatz horiek, bizitzarako, elkarbizitzarako eta hezkuntzarako baliagarri izan dakizkigun.

Gizakion alderik gizatiarrena adierazten dute izaera mugatuak, esker onak, kontzientziari entzuteak eta giza duintasunarekiko errespetuak. Erreferentzia-eremu etiko baten ardatzak dira, bizikidetzakultura berri baten oinarritzko pedagogia baten euskarriak.

-Proposamen honen potentzial pedagogikoa. Geure iritziz, lau ikaskuntza horiek oinarritzkoak dira bizikidetzaren bide berritik ibiltzen ikasteko. Izan ere, esanahi, bizipen eta ikasgai erabakigarri batzuei dagozkie. Azter ditzagun, labor bada ere:

1. Gizakion izaera mugatua. Mugatuak garela ohartzea da, ez dugula arrazoi osoa jabetzea, geure bizitzan horrek zenbateko garrantzia duen konturatzea. Indarkeriaren aurkako prebentzio-modu bat da. Bitarteko ez-etikoak erabiltzea dogmatismoarekin, egia absolutu baten jabe izatearen ustearekin justifikatzen da. Hona bizipen honen ikaskuntza nagusia: *“Neure ikuspegiak beti osatugabeak direla onartzea da elkarbizitza”*. Horrek, berriz, galdera erabakigarri honetara garamatza: *“Zertan ez dut arrazoi osoa?”*

2. Esker ona. Mugatuak izan arren aukera infinituak ditugula esan nahi du. Bizitzaren alderdi onak, positiboak, ederrak, batzen gaituztenak, aukerak... bereizten laguntzen digu. Sakon jorratuz gero, hobezina edo saihestezina deritzoguna baino aukera hobeak beti daudela erakusten digu. Erabakigarria da, bai bizitzarako bai elkarbizitzarako, bitarteko ez-etikoak

erabiltzeko aitzakia “beste biderik ez dago” izaten baita. Esperientzia honen ikaskuntza praktikoa hau dugu: *“Zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea da elkarbizitza”*. Ardatz honi dagokion galdera, berriz, hauxe: *“Zer alderdi positibo du egoera honek?”*.

3. Kontzientziari entzutea. Kontzientzia aintzat hartzea esan nahi du. Denok dugu kontzientzia, eta zerbaitetarako daukagu: aukera etikoak egiteko. Esperientzia-prozesu bat da kontzientziari entzutea. Dogmatismo, amorru, oldarkortasun, beldur, egoismo... bulkada hutsa baino zerbait gehiago izan gaitezkeela ohartzea ahalbidetzen digu. Kontzientziari sakon eta modu kritikoan entzunez gaindi ditzakegu bulkada horiek guztiak. Funtsezko esperientzia da gizakion bizitzan. Azaleko kontzientziari bakarrik entzuten diogulako jotzen dugu indarkeriara edo bitarteko ez-etikoak erabiltzera. Esperientzia honen ikaskuntza, berriz, hau dugu: *“Egiten dudan hautaketa bakoitzean neure erantzukizun etikoa onartzea da elkarbizitza”*. Ardatz honi dagokion galdera, berriz, hau: *“Zer dagokit niri?”*.

4. Giza duintasunaren sakoneko esanahia. Gizaki guztioi zor zaigu errespetua. Esanahi sakona du baieztapen xume horrek. Geure buruaz egiten dugun edozein murrizketa baino gehiago gara. Jartzen diguten edozein etiketa baino gehiago gara. Gizakiaren balio transzendentalarekiko kontzientzia erabakigarria da gizalegezko elkarbizitza izateko. Bere kausa nagusiaren gainera kausa goragoko bat (giza duintasuna) ezagutzen duenak bitarteko ez-etikoak erabiltzea prebenitzen du. Esperientzia honen ikaskuntza hau dugu: *“Gizaki guztioi dagokigun giza duintasuna (urraezina) errespetatzea eta sustatzea da elkarbizitza”*. Ardatz honi dagokion galdera, berriz, hau: *“Zerk du lehentasuna?”*.

Garrantzi handikoak dira lau ardatz horiek, hiru arrazoi hauengatik, besteak beste: gizakion bizitzako oinarrizko esperientziak dira, gizakion funtsezko alderdiak erakusten dituzte, eta elkarbizitzarako gainerako ikaskuntzak ulertzen laguntzen digute. Ez digute ezer berririk irakasten; gizaki bakoitzak barruan daramana erakusten dute, ez besterik. Gizaki bakoitzak bizitzen eta elkarbizitzen ikasteko duen gaitasuna areagotu egiten dute.

Adibide bat: elkarrizketaren ikaskuntza. Lau erreferentzia pedagogiko: bat, neure ikuspegiak osatugabeak direla onartzea da elkarbizitza (izera mugatua); bi, elkarrizketak sentsibilitatea eskatzen du, besteen alderdi positiboak atzemateko (esker ona); hiru, arbitrariotasunik gabe hautatzea da elkarrizketa (kontzientziari entzutea); eta lau, gizakiaren alderik onenean ipintzen du itxaropena elkarrizketak, eta bestearekiko konfiantza eskatzen du (gia duintasuna).

Laburbilduz: mugatuak gara, baina, hala eta guztiz ere, aukera infinituz inguratuta gaude; bestalde, kontzientzia dugu, aukera horien artean etokikoki hautatzeko; azkenik, beste guztien gainera dagoen balio baten jabe gara: giza duintasuna. Horrela hasiko gara elkar hobeto ulertzen eta hobeto orientatzen. Besteak hobeto ulertzen laguntzen digute lau abiapuntu horiek; bizikidetzeta eta gatazkak beste ikuspegi batetik begiratzen laguntzen digute. Hona, bada, geure mezua, deialdia eta proposamena: elkarbizitzarako hezkuntzan, lau ardatz horiek erabiltzea.

Elkarbizitzarako hezkuntzako lau puntu kardinalak

Esanahia	Esperientzia	Ikaskuntza	Galdera nagusia
Izaera mugatua <i>“Ez daukagu arrazoi osoa”</i>	-Mugatuak gara. Horretaz jabetzeak bitarteko ez-etikoen erabilera prebenitzen du, erabilera hori egia absolutu baten jabe izatearen ustearekin (dogmatismoa) justifikatzen baita.	-Neure ikuspegiak beti osatugabeak direla onartzea da elkarbizitza.	Zertan ez dut arrazoi osoa?
Esker ona <i>“Aukerak bereizten badakigu”</i>	-Hautatzeko gai gara. Larderia, indarkeria edo giza eskubideen urraketa ez dira aukera bakarra. “Beste biderik ez dago” hartzen du aitzakiatzat bitarteko ez-etikoak erabiltzen dituenak.	-Zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea da elkarbizitza.	Zer alderdi positibo du egoera honek?
Kontzientzia <i>“Hautaketa etikoak egin ditzakegu”</i>	Dogmatismo-bulkada hutsa baino zerbait gehiago izatea hauta dezakegu, kontzientziari esker. Azaleko kontzientzia bakarrik entzuteak dakar bitarteko ez-etikoak erabiltzea.	-Egiten dudan hautaketa bakoitzean neure erantzukizun etikoa onartzea da elkarbizitza.	Zer dagokit neuri?
Giza duintasuna <i>“Errespetua zor zaigu”</i>	Jartzen diguten edozein etiketa eta geure buruaz egiten dugun edozein murrizketa baino gehiago gara. Bere kausa nagusiaren gainera kausa goragoko bat (giza duintasuna) ezagutzen duenak bitarteko ez-etikoak erabiltzea prebenitzen du.	-Gizaki guztioi dagokigun giza duintasuna (urraezina) errespetatzea da elkarbizitza.	Zerk du lehentasuna?

Epilogo (giza duintasunaz)

Giza duintasunaz luze hitz egin dugu. Izan ere, ibilbide honen guztiaren giltzarria da. Ziurtzat eman dugu haren esanahiarekin bat gatozela, baina, beharbada, ez da erabat zuzena. Bestalde, kontzientziari buruzko hitzaurre batekin hasi dugu hitzaldia. Amaitu, berriz, giza duintasunari buruzko epilogo batekin amaituko dugu.

Lehenik eta behin, argitu beharra dago giza duintasuna asmakizun bat dela, gizakion sorkuntza bat, giza eskubideak bezala. Neure ustez, gizateriak inoiz egin duen asmakizunik onena da. Hala eta guztiz ere, asmakizuna izan arren, izugarri ongi egokitzen da gizakiaren alderdirik gizatiarrenera.

Giza duintasuna ez da eskubide bat, eskubide guztien sorburua baizik. Kontzeptu horretan oinarritzen dira eskubideen eta askatasunen deklarazioak, konstituzioak, hezkuntza unibertsala, osasun unibertsala, erretiroa... Neure ustez, geure bizitza sozialeko eta komunitarioko baliorik gorena da giza duintasuna, berradiskidetzaren eta bizikidetzaren oinarria.

Zer esan nahi duen? Gizaki guztioi eskubideak eta erantzukizunak dagozkigula, eta errespetua zor zaigula. Giza duintasunari esker, ez dugu elkar ikusten bitarteko huts gisara, helburu modura baizik. Hautatzeko gaitasuna dugulako gara helburuak.

Laburbilduz, sakratuak gabela esan nahi du giza duintasunak, gizaki bakoitza sakratua dela, bizitza bakoitza bakarra eta errepikaezina dela, errespeturik gorena zor zaiola. Bizipen bakoitza eskatzen du giza duintasunak: norberaren buruarekin, eta besteekin.

-Giza duintasunaren esperientzia norberaren buruan. Erreferentzia-balio gorena da giza duintasunaren etika. Gutako bakoitzaren izatearen garrantziaz eta balioaz ohartzea esan nahi du. Geure bizitzaren garrantzia dela eta, norberaren kontzientzia sakona eta zintzoa da giza duintasuna. Benetakotasunaren bilaketa eskatzen du.

Norbera onartzea, errespetatzea, maitatzea eta zaintzea esan nahi du giza duintasunak. Geure gizatasunaren muina aurkitzea da. Neure izaera mugatuaz eta sormenaz ohartzea, eta hori baino zerbait gehiago naizela. Geure arazoak, sufrimenduak, sentimenduak, nortasuna, dogmatismoa... eta hori baino zerbait gehiago gabela. Adibidez, neure beldurrak baino gehiago naizela, jartzen didaten edozein etiketa eta neure buruaz egiten dudana edozein murrizketa baino gehiago naizela.

Geure barrenean aurkituko dugun "zerbait gehiago" hori neure giza duintasuna da; hori guztia baino zerbait gehiago. Geure loturengatik eta miseriengatik blokeatuta ez gelditzera bultzatzen gaitu duintasunak, geuregandik ikasten jarraituz.

-Giza duintasuna besteekiko harremanetan. Geure-geurea dugu norberaren giza duintasuna. Preskribaezina da. Baldintza-gabetasunezko esperientzia bat da norberaren giza duintasunaren bizipena. Horregatik, funtsezkoa da bizitzarako eta elkarbizitzarako. Giza duintasunaren geure bizipenak, izan ere, besteena ulertzen laguntzen digu, geure duintasunaren eta gainerako gizakien arteko lotura etiko sakonaz jabetzen.

Giza duintasunak errespetuaren, berdintasunaren, elkartasunaren, justziaren, bakearen, askatasunaren... sakoneko zentzura hurbiltzen gaitu. Kontzeptu horiek guztiak ulertzeko, giza duintasunaren esperientzia behar da. Oso zaila da goi-balio horiek hezteko norberaren giza duintasunaren esperientzian oinarritua ez bada. Giza duintasunaren sakoneko kontzientzia iturri bat da, eta bizitzarako zein elkarbizitzarako etika unibertsal bat ureztatzen du. Bakerako eta bizikidetzarako balioak irakasteko hezkuntzaren euskarria da giza duintasuna.

Amaitzeko, lekukotasun pertsonal bat. Egun gutxi barru, 50 urte beteko ditut; badut seme-alabarik, eta irakasle-lana ezaguna dut etxean; Baketik-ek, berriz, formazioa eskaintzen die helduei eta irakasleei; hogeita hamar urte daramatzat gatazkak aztertzen... Bakerako, justziarako eta elkarbizitzarako heziketa zer den labur erantzuteko esango balidate, hau litzateke neure erantzuna:

"Norberaren eta besteen izaera mugatua, esker ona, kontzientziari entzutea eta giza duintasuna behin eta berriro lantzen laguntzea da elkarbizitzarako hezkuntza".

Horra, neure ustez, egin behar duguna. Mila esker.

Jonan Fernandez

Gasteiz, 2012ko martxoaren 14a